

ZIRTAK

Angel Erro

IDAZLEA

Gezurtiaren estrategia

Kattalinek bere urtebetetzea ospatu behar du erdigunean zaharberritu duen etxebizitza puskan. Aspaldian da lagunokin ez dela egoten eta, jai gose, nahi du denok joanda ederra egin dezagula.

Nik etxean gelditzea erabaki dut, baina ezin diot hola esan. Herri ezjakituriak kontrakoa aldarrikatu arren, adiskide on bati gehienbat esan behar zaio gezurra. Astelehenean odola atera behar didate (hemen komentatu nahia-go ez dudan zerbaiteko) eta ez nabil oso adoretzu. Nirean lasai egotea komeni zait. Festara Ander joango balitz sikiera. Ander joango balitz birpentsatuko nuke. Agertuko nintzateke seguruenik. Baina bera ez dago Kattalinekin e-mailean erantsi duen konfirmatuen zerrendan.

Lan kontuengatik, Logroñora joan behar dudala erantzun diot. Urteak dira ez naizela Logroñon egon.

Izan dut arreta handia aitzakiarako hitz zehatzak aukeratzerakoan. Natural itxura izan behar du. Neure burua gehiegi ez desenkusatu. Deitorea ez puztu ere. Gogoan dut behin irakurritako saiakera, gezurtiaren estrategiari buruzkoa, Apuleioren *Urrezko Astoako* Hemo pertsonaiaren gezurren aztarna testualei, aporistikoei buruzkoa. Irakurleak jakin lezake, hitzei kasu emanez, iruzurretan ari dela Hemo, baina bahitzaileek ez dute asmatzen. Gezurra hitz kontu bat da, ez imintzio konturik. Ironia gauza bera (bere burua autoironikotzat aldarrikatutako idazle batzuei trufa edo buru-trufa aurkituko dien txerriarik ez da sortu, beraiek aitortu arte, testutik at, noski). Ironikoak nahita uzten ditu arrastoak. Gezurtiak, antza, nahigabe. Horrexegatik, idazketan arreta berezia jartzen dut. 'Kattalin maitea', hasi naiz.

Larunbatean etxean gelditu naiz. Eta astelehenean, ospitalean, odola atera berri, Kattalin topatu dut kafetegian (gertagariaren baitan zegoen, zer txandatan ari



JOSU SANTESTEBAN

«
Ironikoak nahita uzten ditu
arrastoak. Gezurtiak, antza,
nahigabe. Horrexegatik,
idazketan arreta berezia
jartzen dut.
'Kattalin maitea'
hasi naiz
»



irudia:

Antton Olariaga

zen, erizain egiten baitu lan). Festan oso ongi pasa zutela esan dit, kristoren parranda, faltan bota nindutela, ea ni zer moduz Logroñon. Irudipena izan dut tonu berezian, burlaizez, galdetu didala. Susmorik ote du?

Kontatu diot *Actual* jaialdia zela-eta kudeaketa kontu batzuk konpontzera joan behar nuela, kultur hornidurarenak eta bide batez Micah P. Hinson-en kontzertura gelditu nintzela bertako lagun batzuekin. *Sin más*. Buelta bat eman genuen lehenago, bai. Laureal kalean *txanpi* tapa ospetsuak dastatu. Batek *Alcampo* supermerkatuan aurpegiko krema batzuk erosteko aprobetxatu nahi zuen, urre partikuladunak, ononak, oso merke (bederatzi eurotan!) saltzen dituztenak; dermatologoek ere gomendatzen dituzte. Gehiegi hitz egiten ari naizelako sentsazioa dut baina Kattalin da erasaten didana. Espolón Pasealekuan izan al naizen ere galdetu dit. Bertan ateratako argazki bitxi bat (Francoren zaldiaren barrabilei egina) erakustekotan egon naiz baina mobila etxean utzi dut. Irribarre maltzur batez, Ander ez ote dudana Logroñon ikusi galdetu dit. Bera ere hara joan zelako larunbatean, egun pasa eta kontzertu berera. Aztoratuta (zer esan orain?), ezetz erantzun diot. Zer dela-eta atera du orain Anderrena? Tranpa al da? *Farol* bat? Zer demontre ari zen Ander Logroñon?!

Kontzertura berandu heldu nintzela, eta hiritik gehiegi ibili ere ez, azaldu arren, Kattalinen itxurazko ez sinetsia handituz doa. Zer esango ote zion Anderrek? Neure burua gezurtatzen ari naiz?

Azkenik, tortura honekin amaitzeko, bide laburrena hartzea erabaki dut:

“Gezur gehiagorik ez, Kattalin. Zerbait aitortu behar dizut.”

“...”

“Logroñon... zera... Ander eta biok... elkarrekin ibiltzen hasi gara”.

“Ez zenuen esan beharrik. Berak dagoeneko kontatu dit”. ■